

BERTSO-PAPER LEHIAKETA BIZKAIAN

# NIRE GORPUTZA, NIRE ERABAKIA

HEMEN ZEIN GUATEMALAN!!!



## OINARRIAK



**medicusmundi bizkaia** Elkartetik “*Nire gorputza, nire erabakia*” bertso-paper lehiaketa antolatzen dugu emakumeak gorputzaren eta sexualitatearen inguruan askatasunez erabakitzeke duten eskubidearen errespetua aldarrikatzeko hemen zein Hegoaldeko herrialdetan.

Nahi gabeko haurdunaldiak, sexu-transmisioko infekzioak, abortu arriskutsuak, indarkeri matxistak edota bereizkeria orientazio sexualagatik, besteak beste, gure giza eskubideak urratzen dituzten ekintzak dira, gure sexu eta ugalketa-eskubideak hain zuzen ere.



### 1.- PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan Bizkaian jaio, lan egin, ikasi edo bizi direnek parte hartu ahal izango dute.

### 2.- LANAK

Lehiaketak bi maila izango ditu: gazteena (17 urte arte) eta helduena (18 urtetik gora).

**Gazteen mailan**, parte-hartzaile bakoitzak gutxienez 2 bertso egin beharko ditu eta gehienez 4.

\* **12 eta 26 urte bitarteko gazteek bertso-sortak Beldur Barik lehiaketara ere aurkezteko aukera dute. Honetarako, bertso-sortak idatziz eta ikus-entzunezko formatuan bidali behar**

**dira. Hau da, kamara edo mugikorra aurrean grabatuko dira bertsoak, bideo-plataforma batera esteka bat jarritz (Youtube, vimeo, etab). Beldur Barik Lehiaketaren oinarriak kontsultatu [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org)**

**Helduen mailan**, parte-hartzaile bakoitzak gutxienez 3 bertso egin beharko ditu eta gehienez 8.

Parte hartzaile bakoitzak nahi adina bertso-sorta bidal ditzake. Bertso guztiak jatorrizkoak izan beharko dute, hau da, inon argitaratu, aurkeztu eta saritu gabekoak. Ezizena erabiliko da sinadurarako.

Doinua eta neurria libreak izango dira. Dena den, ezinbestekoa da doinuaren izena argi adieraztea.

Gaia “emakumeak gorputzaren eta sexualitatearen inguruan askatasunez erabakitzeke eskubidea hemen eta Hegoaldeko herrialdetan” izango da.

### INFORMAZIO GEHIAGO (LINKAK SAKATU!):

- ① Nire gorputza nire sexualitatea bideo-animazioa (bertsoak): <http://www.youtube.com/watch?v=uE-zGIotsi4>
- ② Emakumeak eta eskubideak. Sexu eta Ugalketa Osasuna. Giza eskubide bat [http://www.medicusmundi.es/index.php/bizkaia\\_eu/educacion\\_y\\_sensibilizacion/material\\_educativo/mujeres\\_con\\_derechos](http://www.medicusmundi.es/index.php/bizkaia_eu/educacion_y_sensibilizacion/material_educativo/mujeres_con_derechos)
- ③ Gizarte Komunikazioa sexu eta ugalketa eskubideak



sustatzeko orduan

[http://www.medicusmundi.es/index.php/bizkaia\\_eu/educacion\\_y\\_sensibilizacion/material\\_educativo/la\\_comunicacion\\_social\\_en\\_la\\_promocion\\_de\\_los\\_derechos\\_sexuales\\_y\\_reproductivos](http://www.medicusmundi.es/index.php/bizkaia_eu/educacion_y_sensibilizacion/material_educativo/la_comunicacion_social_en_la_promocion_de_los_derechos_sexuales_y_reproductivos)

④ Miss Escaparate (bideoa):

<http://www.rtve.es/television/20130305/documentos-miss-escaparate/613325.shtml>

⑤ Beldur Barik Programa

<http://www.beldurbarik.org/category/gorputza/>

Hizkuntza sexista erabili edo genero-parekidetasuna errespetatzen ez duen bertsoirik ez da aintzat hartuko eta hautagaia lehiaketatik kanpo geratuko da.

### 3.- EPEA

Lanak aurkezteko azken eguna 2013ko azaroaren 15 izango da.

### 4.- HELBIDEAK

Bertsoak bidaltzeko bi aukera egongo dira:

• **POSTA ARRUNTEZ** bidaliz gero, bertso-sorta gutunazal batean bidali beharko da ezizenez sinatuta. Beste gutunazal batean egilearen izen-abizenak, jaioteguna, helbidea, telefonoa, e-maila eta NAN (nortasun-agiri nazionala) kopia sartuko dira. Egilea Bizkaian jaio ez bada edo nortasun-agiri nazionalan agertzen den herria Bizkaikoa ez bada, ziurtagiria bidali beharko da bertan bizi, lan egin edo ikasten ari dela frogatzeko. Egilearen ezizena gutunazal bietan jarri beharko da kanpoaldetik.

Honako hau da helbidea:

**“Nire gorputza, nire erabakia”**

**Bertso-paper lehiaketa Bizkaian**

**medicusmundi bizkaia**

**Begoñako Andra Mari kalea 20.zenb., behea  
48006 Bilbo**

• **POSTA ELEKTRONIKOZ** bidaliz gero, bi dokumentu bidali beharko dira. Lehenengoan bertso-sorta eta ezizena agertuko dira. Bigarrenean, berriz, egilearen datuak (izen-abizenak, jaioteguna, helbidea, telefonoa, e-maila eta NAN-ren kopia eta ziurtagiria, beharrezkoa izanez gero). Honako hau da helbidea: **educa.bizkaia@medicusmundi.es**

\* **Beldur Barik Lehiaketan parte hartzeko nahian lanak**

**ikus-entzunezko formatuan aurkeztu behar dira (kamara edo mugikorra aurrean irakurritako bertsoak), bideo-plataforma batera esteka bat jarritz (Youtube, vimeo, etab). Deialdi honetan parte hartu nahi duten pertsonen proposamena e-maila bidez bidali behar dute (educa.bizkaia@medicusmundi.es eta jarrera@beldurbarik.org) eta Beldur Barik Lehiaketaren Oinarriak bete behar dituzte. [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org) web gunean aurkituko dituzu oinarriak eta lanak aurkezteko bete beharrak.**

### 5.- SARIAK

GAZTEEN MAILA: **1. saria: 300€ 2. saria: 100€**

HELDUEN MAILA: **1. saria: 500€ 2. saria: 200€**

Parte-hartzaile batek ezingo du sari bat baino gehiago jaso.

\***Beldur Barik Lehiaketan ere parte hartzen dutenek, deialdi bakoitzean sari bat jasotzeko aukera izango dute. Hau da, Bizkaiko bertso lehiaketan sari bat eta Beldur Barik Lehiaketan beste bat.**

### 6.- EPAIMAHAIA

Epaimahaia medicusmundi bizkaia, Bizkaiko Bertsozale Elkarteak eta Pikara Magazinek osatuko dute.

Bertso-sortak ebaluatzeko, epaimahaiak kontuan izango du proposamenak genero-parekidetasun ikuspuntua izatea, emakumeen giza-eskubideak errespetatzea eta hizkuntza ez sexista erabiltzea.

Epaimahaiaren esku geratzen da sarien banaketa. Edozein sari eman gabe utz dezake epaimahaiak, behar adina kalitadedun lanik ez dagoela erdiesten badu.

### 7.- SARI-BANAKETA

Sari-banaketa 2013ko abenduraren 5ean izango da, 20:30tan, Bilboko Hika Ateneoan burutuko den bertso-saioan (Muelle Ibeni 1, behea – Atxuri. Bilbo).

\* **Beldur Barik Lehiaketaren sari-banaketa 2013ko azaroaren 30ean izango da, Basauriko Marienean, 16:30ean. Informazio zehatzagoa [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org)**

### 8.- LANEN JABETZA

Aurkeztutako lanen jabetza medicusmundi bizkaia Elkartearena izango da eta lan hauek argitaratzeko eskubidea izango du.

### 9.- BESTELAKOAK

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar. **medicusmundi bizkaia** oinarri hauetan jasotzen ez den edozein egoerari irtenbidea emateko ahalmena du.

Lehiaketari buruzko informazio gehiago behar izanez gero, hona hemen harreman-bideak:

**Telefonoa: 94 412 73 98**

**E-maila: educa.bizkaia@medicusmundi.es**

**Bloga: [www.medicusmundibizkaia.org](http://www.medicusmundibizkaia.org)**

**Web gunea: [www.medicusmundi.es/bizkaia](http://www.medicusmundi.es/bizkaia)**

**Facebook: [Medicusmundi Bizkaia](https://www.facebook.com/MedicusmundiBizkaia)**

**Twitter: [@medicusmundibiz](https://twitter.com/medicusmundibiz)**

#### ANTOLATZAILEA:



#### LAGUNTZAILEAK:



#### BULTZATZAILEA:



Bizkaiko Foru Aklundia  
Deputación Foral de Bizkaia



### ZABALDU ZURE BELDUR BARIK JARRERA!

Zure bertsoekin zuzenean Beldur Barik lehiaketan parte hartzen duzu Informazio gehiago: [www.medicusmundibizkaia.org](http://www.medicusmundibizkaia.org)

\*Datu pertsonalen Babesarako 15/1999 Lege Organikoak dioen arabera, zure datuak fitxategi batean gordeko ditugu. Fitxategi hau datuen babeserako agentziaren erregistroan inskribatua dago eta medicusmundi bizkaia da honen arduraduna. Datu hauen bilketaren helburua lehiaketaren kudeaketarako beharrezkoak diren izapideak erraztea da. Edozein kasutan, zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edota aurkakosuna adierazteko eskubidea duzu medicusmundi bizkaia-ra zuzenduz helbide honetan: Begoñako Andra Mari, 20 zenb., behea 48006 Bilbo edo helbide elektronikoa honetan [bizkaia@medicusmundi.es](mailto:bizkaia@medicusmundi.es) eta komunikazioan DBLO adieraziz.